

# Desengainua

**A** Mirandarra da eta Teheranen bizi da. Urtean lau bat aldiz etortzen da Londresera lan kontuak tarteko eta horrela ezagutu nuen. Hauteskunde ondorengo astean hitz egin genuen berarekin. Emaitzak jakin aurretik itxaropentsu zegoen. Baina, bestelakoa zen bere aidartera gurekin hitz egin zuenean.

A.M beldur da kalera atera eta bere ideiak azaltzeko. Zauritu gutxi batzuk bakarrik erakutsi dizkigute telebistan; baina, tamalez, berak gehiago ikusi ditu. Kazetariak oso kontrolatuta daude, eta, azken batean, guri iristen zaigun informazioa oso manipulagarria da. Beldurra sentiarazten duen errepresioa ez da demokraziaren definizioaren barnean sartzen. Adierazpen askatasuna ukatzen dizun demokraziaren erregelak faltsuak dira. Hori zioen A.M-k.

A.M-k bazekien Mousavirekin ez zela bere bizitza goitik behera aldatuko. Azken batean, Ali Khamenei buruzagi gorenaren erregimenak aukeratua izan zen hura ere. Baina, askatasun pixka bat arnastu nahiak indartzen zuten, libreago izan nahiak, erregimenaren arau batzuk onartu behar bazituen ere. Orain, aldiz, desengainuaren kolpeak beste gauza batzuk ulertarazi dizkio. Hiritar desilusionatuak dituen lurralde batean bizi dela konturatu da, oraindik indartsuago bihurtu den erregimen batean.

Aste batzuk barru beste aibiste batzuek beteko dituzte egunkarietako tituluak, mundua ahaztuko da Iranen gertatu denaz eta hauteskunde aurreko egoera antzekoa geldituko da irandarrentzat. Oker nagoeia pentsatzen nahiko nuke, manifestatzen ausardia eta beste lurralde batzuen interbentzioa diktadura suntsitzeko gai direla arnastu nahiko nuke. A.M-k arnasten duen bezala.



**Larrepetit**  
Garazi Goia

**Hiritar desilusionatuak dituen lurralde batean bizi dela konturatu da, oraindik indartsuago bihurtu den erregimen batean**

## Hemeroteka

### Tripa Karmelet Jaiok Deia

Jende gehienak tripa dauka, ia behingoz gutxi berneratzen dugun. Salbuespenak salbuespen, ia pertsona guztiak, salbuespenak salbuespen, sabelaidea puztu egiten zaie. bereziki adin batetik aurrera, eta estreinatutako berri dugun uda honetan sabel laua erakutsiko duten ia bakarrik urte osoan horren kontra borrokatu direnak izango dira. Neguan gimnasia joan direnak, dieta egin dutenak, naturaz sabel laua dutenak, edo, Woody Allenen dioten bezala, ezinezona gimnasia izatzen dutenak. Horiek dira salbuespenak. Horiek guztiak ez diote arnasan eutsi beharko hondartzako ertzetik edo igerilekutik paseatzen direnean.

Jende normalak tripa dauka, eta ilea han eta hemen, eta garal honetan oraindik zuri daude ia pertsona guztiak, ez badute berez azal beltzarana, ez badira itsasertzean bizi eta ez badute eguzkia hartu beste egitekorik, edo ez badute etxe alboko solariuma bisitatu azken hilabeteetan. Baina normala azalak oraindik neguko kolore gaixoti hori edukitzea da. Eguzkiaren aurrean estreinatutako berri den azalaren kolorea izatea normala da.

Eta ia konbentzitzen garen. Pertsona guztiak, adin batetik aurrera, bigundu egiten zaie azala. Azala zena azalak bihurtzen dira eta lehen tente zudenak zintzilak agertzen dira han eta hemen. Hori jende normalari gertatzen zaio.

Dendan bainu jantzi berria probatzea denentzat da trantze latza. Hasperen egiten dugu fluoreszentearen argi zuria den pean gure gorputza ikustean eta garai batean gure gorputza ezberdina zela pentsatzen dugu. Agian ez zen inoiz ikusgarria izango, baina gaur ez du zerikusirik aldizkarietan agertzen diren fotoshoparekin landutako eskultura horiekin.

Horregatik, del bat egin nahi dut: erlaxatu gaitzen, utz diezaiozun arnasa eusteari eta atera dezagun tripa uda honetan naturaltasunez. Uda horretarako delako, erlaxatzeko. Eta tripadunak gehiengo garelako gainera. Uda on pasa guztiak.

## Zuzendariari

**BERRIAK** irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere —espioak bame— baino luzeago izan behar, eta **BERRIAK** moztuko eskubidea du. Halbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita. Berria, Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain. Eskutitzak internet bidez bidaltzeko: [intzia@berria.info](mailto:intzia@berria.info).

### 'Talaiatik tiroka'

Bajan nagoenez, *Talaiatik tiroka* Markos Zapalainen liburuari amaitu ahal izan dut: erabateko sorpresa eta egundoko gozamenak izan da niretzat!

Ez naiz blogak irakurri zalea, asti kontua da, baina ematen du blogak literatura modu propio bat sortu duela. Gaiki ugari —kultuak, aruntak, pribatuak, politikoak: denetik—, tratera beti okurrentziak betea, beti ikusteko modu ez topiko bat, beti umorez bezain serio, beti labor, bixi-bixi.

Ezusteko hasieraren (kikunbera) eta bukaera *staccato*-aren artea. Egunerokotasunaren oharpen kasik brutalki errealista. Erriktusua gure mundutxoarekin. Dena izugarri ongi idatzia, orri bakoitza eta lerro bakoitza, behin ere huts egin gabe. Lexikoa zaindua, kasik gozoa, erraztasun txundigarri bat baliabideen aberastasun zaila ezkatuta egiten duena. Edozein arazori buruz beti kritikoa eta zentzudun. «astakeriak»: ere oso zentzudun, dena zorrotz, fin, buruargi, lotsagabe eta xamur, delikatu. Informazio kulturat ugari harri-garrikoz...

Jainkoen festa bat.  
Jose Azurmendi. Idazlea.

### Jose Mari Landari gutun irekia

Jose Mari maitea.

Erantzun karta hau Arrigorriagan Espainiako Pollziaren aurkako atentatu gertatu baino lehenago neukan pentsatuta. Eta bueltak eman eta gero, pentsatuta neukan moduan itxia erabaki dut.

Lehenik eta behin, zuzat bat nator gure Aberri honetan jasaten dugun kostea handia dela. Konpara ezina, margo edo kartel batzuk kentzeak daukan balio ekonomikoarekin. Gaizta delako jakitea zenbateko kostua daukan egunero gure etxe eta autoak margotuta agertzea. Kaiean zehar irainduak izateak edo gure aurkako papertxoak botata ikusteak. Hau guztiak gertatu izan da eta gertatzen da gure udalerri honetan. Berdin ere baioratu ezina da presoen senideek haiek ikusteko hainbat kilometro egiteak suposatzen duena. Arrazoiak duzu. Baina zer esan ba mehatxak direla-eta euren seme-alabek zuten zehar joan ezin diren pertsonak? Eta batez ere, eraildako euren senideak bisitatzera kanposanturen batera joan behar direnen gainean?

Badakizu Karmeloren egoera hobetzen lagundu dugula, inoiz Udal honen eskuduntzetatik eta nik neuk alkate modura dauzkadan eskuduntzetatik harago ere bai. Gogoratu bestela zuek eskatuta egin genuen ziurtagiriak.

Azkenik, jakinean zara, herrian zehar jarritako hainbat karteletan horrela iragarri gurenelako, 2008ko urriaren 30ean zinegotzi

guztiak, gure herriko jendearen eskariari erantzunez, leku publikoetan edo jabeek baimendutako leku pribatuetan, kartel, pintada, papertxo eta abarreko guztiak kentzeko erabakia hartu genuela (horregatik ba, baimenik ez genuen leku pribatuetan egonda, zuk aita-tutako ume margo biak ez kentzearen arrazoiak). Baina pertsona batzuk ez dute herriko gehiengo batek hartutako erabakia errespetatu, eta pintadak, irainez betetako kartelak eta jendearen kontrako ekintzak burutzen jarraitu dute. Horregatik, hau guzti hau kentzeak daukan kostuaren berri eman gura izan genien gure herrikerieei.

Zure/gure egoera iatz hau ahalik eta arinen amaitu dadila espero dut, eta horretarako «giltza» daukatenez, Espainiako Gobernuak zure kasuan, abertzaletasunaren zati batek gure kasuan, eta ETAK mehatxatu eta eraildako kasuan, jasaten dugun urrutzea, sakabanatzea, tortura, irain, margo, mehatxu zein erailketak amaitu ditzalente.

Hau guzti honen gainean pentsatu beharra daukagu. Eta baita kartel, pintada eta irainen gainean.

**Asier Madarieta.** Eako alkatea.

### Esku beltza

Anjel Lertxundik iragan larunbateko *Hitz* bestetxokoan agindutako eguraldiaz jardun zuen, eta bukaera aldean zera esan zuen: «Atzo beste hildako bat. Aginduta dago eguraldi kaskarra: iragarrita eta gub kontrolatzen ez dugun esku beltz batek baimenduta».

Azken esaldi horretaz gogoeta eginez zera etorri zait burura. Guk (Anjelek eta) kontrolatzen ez dugun esku beltz bat baldin badago, nonbait, esku (berak eta) kontrolatzen dugun beste esku bat badago. Eta haiek kontrolatzen duten eskua badago, nolako da, zuria aia beltza?

Gaia sakonduz, honeiaiko galderak etorri zaizkit burura: beraiek kontrolatzen duten eskua zuria bada, zer egiten du esku zuri horrek? Alderdi eta erakunde politikoak legez kanpo uzten ditu? Ala egunkariak eta beste-lako komunikabideak ixten ditu, apika? Edo,ta, hauteskundean *putxerazoa* antolatzen du? (Ez naiz irangoaz ari, hemengoaz baizik).

Esku beltza izatekotan, zer egiten du esku beltz horrek? Atxilotuak bakartu eta torturatzen ditu? Ala pertsonak bahitu eta desagerarazten ditu, akaso? Haiek kontrolatzen duten esku beltzak duela bi hilabeteetik Donostiako Intxaurrondo auzoan gogor ari duen eguraldi kaskarra agindu al du?

Zoritzarrez, Euskal Hernan aspaldianik dugu eguraldi kaskarra, baina nonbait batzuk solik agertzen dira beraiek bustitzen direnean. Azken galdera: haiek kontrolatzen duten eta aron txar hau agindu duen eskuaren atzean nor dago?

**Santi Angulo Martin.** Errenteria.

## www.berria.info

### Michael Jackson

Inoizko kantarririk onenetako bat izan da. Sekulako sormena zuenak. Batik bat 80ko hamarkadan, eta baita 90ekoan ere. Gero, dezentzera nahastuta ibili zen. Norabiderik gabe. Baina jeno bat izan da. Gutxi bezalakoa.

**Mikel Herria.**

### Popoko erregea

Jenio bat izan da Michael Jackson. Dantzarri paregabeak! Ezin esan bizitza lasala izan zuenik, gaztetatik musika munduan egoteak ez baitio inori laguntzen bizitza orekatua eramatean. Michaelen mitoa ez da inoiz hilko. **ABII.**